

# Asisko gutuna

2013ko Abendua.

2. printzipioa.

Eguneroko bizimodua: barnerantz, umiltasuna

62. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Zenbat aldiz ez ote dugu esan “Zuk ematen didazu bizia”. Maite dugunari esan diogu. Zulo beltzetik atera gaituenari esan diogu, gu geu izaten lagundu digunari, ulertu gaituenari. Geure seme-alabei esan diegu eta gure gurasoei. Eta baita Jainkoari ere, Izan ere, egiaz aitortu baitezakegu Jainkoaren begirada maitekorren aurrean garena garelara. Eta horrexek balio digu. Eta horixe da bizia ematen diguna.

## Gogoetarako gaia

### *Egian bizi*

Apala izatea maiz lotu da nork bere burua gutxi-tzat edo besteak baino gutxiagotzat jotzearekin; eta alderantziz, harroa izatea nork bere burua askotzat edo besteak baino gehiagotzat edukitzearekin. Baina egian bizi dena da apala. Bestela esanda, bere buruarekin eta besteekin garbi jokatu nahi duena da apala, norberaren eta ingurukoaren errealitatearen bila darraiena. Bilaketa hau ez du akuilatzen besteak ezagutzeko irrikak haiek menpean hartzeko, edo jakin minak besterik gabe. Benetakotasunez eta iruzurrik gabe bizi nahiak bultzatzen du. Bilaketa honetan nork bere alderik ilunenak ezagutzen ditu, norberak bere baitan nahiko ez lituzkeenak; baina alde argitsuak ere aurkitzen ditu, bizipoza ematen diotenak.

Apaltasuna ez datza nork bere alde iluna azpimarratzean eta argitsua estaltzean, bata nola bestea onartzean baizik. Horrek benetakoagoak egiten gaitu geurekin eta hurbilagoak besteekin, gutxiago menperatuak ematen dugun irudiari, li-

breagoak erabakiak hartzeko, ideien eta portaeren estandarrei edo aldian aldiko modei ... lotuak gelditu gabe. Apaltasuna benetakotasunez bizitzeak egian bizitzea eta irautea emango digu, zeren eta egiak ume-zuribiderik eta behera etortze heldugaberik gabe bizitzeko konpromisoan sartzen baikaitu. Eta horrela heldu izatera etortzeko bidean gaude.

Apaltasunean bizitzeak badu beste maila bat, hain zuzen Jainkoaren egian bizitzea. Naizena eta ez naizena, Jainkoaren aurrean naiz. Norbaitek bizi lezake hori, Jainkoaren nahiaren altueran sekula ez egoteak ematen dion larritasunez. Baina Jesussek, gure egia Jainkoak digun maitasunetik bizitzea eskaintzen digu. Eta horrek dena aldatzen du. Horrela, bizi naiteke egian, Haren sorkari besterik ez naizela aitortuz, eta, aldi berean, Hark Jesusengan agertu didan borondate maitetsua eskertuz: maite nauen sorkaria naiz. Eta hori gauzarik handiena da bizitzan.

## Ebanjelioko pasartea: Lk 18, 9-14

Honako parabola hau esan zien Jesussek beren buruak zintzotzat hartzen eta besteak gutxiesten zizuten batzuei: «Bi gizon tenplura igo ziren otoitz egitera, bata fariseua eta bestea zergalaria. Fari-seuak, zutik, honela ziharduen otoitzean bere baitan: “Ene Jainkoa, eskerrak zuri besteak bezalakoa ez naizelako: lapur, gaizkile edota adulteriogile; ezta horko zergalari hori bezalakoa ere. Astean bi bider egiten dut barau, eta ondasun guztien hamarrenak ordaintzen ditut”. «Zergalaria, berriz, urruti gelditurik, ez zen begiak lurretik altxatzera ere ausartzen, baizik eta bular-joka ari zen esanez: “Ene Jainkoa, erruki zaitetz bekatari honetaz”. «Benetan diotsuet azkeneko hau Jainkoarekin bakean itzuli zela etxera; fariseua, berriz, ez. Zeren eta bere burua goratzen duena beheratu egingo baitu Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena, goratu».

## Frantziskotar espiritualtasuna

Zorionekoa bere burua hobetzat ez duen zerbitzaria jendeak handiesten eta goratzen duenean, kas-  
kar, simple eta mespretxagarritzat daukanean baino, zeren eta gizakia Jainkoaren aurrean zenbat den,  
hainbestexa da eta ez gehiago. (Adm 19). Frantziskok esaten digu, gure egia Jainkoaren bihotzean  
dagoela. Harengan eta Harentzat zer garen, horixe da gure benetako errealitatea. Frantziskok badaki  
bere burua eta lagun hurkoa Jainkoagandik kontenplazten, eta hortik aurkitzen du bai gure miseria  
handia, bai eta gure handitasun neurrigabea ere.

“Gorde gaitezen, bada, anaia guztiok inolako harrokeria eta handiustetik ... Eta bihur diezazkiogun on  
guztiak Jainko Jaun goi-goiko eta gorenari, eta aitor dezagun on guztiak bereak dituela, eta eskerrak  
eman diezazkiogun guztiengatik, berarengandik baitator on oro” (1 Er 17,9.17). Frantziskorentzat egian  
bizitzea eta benetan apal izatea lotua dator esperientzia honi: dena dohain eta grazia dela. Orduan bizi-  
tzen da esker onez, dohain ororen iturri den On Goren den Jainkoagandik hartzen duguna geure egin eta  
kontsideratu gabe. Apaltasuna, dohainen nondikakoa aitortzetik eta esker onetik sortzen da eta maitasu-  
nean da agertzen, Jainkoak besteengan eta besteen bidez ere egiten eta esaten duen onagatik pozten da-  
kien maitasunean.

## Otoitza

Seme-alabatxo: zuk oraindik ez dakizu zer zaren.  
Ez duzu zeure burua nire maitasunaren objektu gisa  
ezagutzen:  
horregatik ez dakizu zer zaren nigan  
eta ez dituzu zeugan dituzun posibilitateak ezagutzen.  
Esna zaitez eta uxa amets gaiztoak: duzun obsesio  
hori  
zeure porrot eta hutsegiteetan,  
neke, erorialdi eta oker pausotan.  
Hori dena ez da zure benetako izatea.  
Utzi zaitez maitatua eta gidatua izaten eta ikusiko  
duzu! ...

Egizu ageriko nigan zarena.  
Izan zaitez errealitate egin duzun amets.  
Jarri martxan zeugan jarri ditudan posibilitateak.  
Ez dago irrika ez dezakezun dohainik:  
nire zigilua, nire odola, nire Espiritua daramazu.  
Musukatzen, maitatzen, liberatzen, martxan jartzen  
zaitut.  
Bizitzara zabaltzen zaitut eta jaun egiten.  
Eta hori dena egiten badut nik,  
zerk egiten dizu oztopo altxa, ibili eta izan zaitezen?  
Zeure onerako eta nire nahiz zaude munduan.

**Florentino Ulibarri**

## Gutuneko azken hitzak

“Egiazko gizarte garapena ez dator beharrak ugarizetik baizik eta norberaren erabakiz gutxizetik;  
baina horretarako apala izan behar”. (Mahatma Gandhi)

## 2013ko abenduko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen  
dauzkate abenduko erreferentzia guztiak:

1 Mt 24, 37-44	8 Mt 3, 1-12	15 Mt 11, 2-11	22 Mt 1, 18-24	29 Mt 2, 13-15.19-23
2 Mt 8, 5-11	9 Lk 1, 26-38	16 Mt 21, 23-27	23 Lk 1, 57-66	30 Lk 2, 36-40
3.Lk 10, 21-24	10 Mt 18,12-14	17 Mt 1, 1-17	24 Lk 1, 67-79	31 Jn 1, 1-18
4 Mt 15, 29-37	11 Mt 11, 28-30	18 Mt 1, 18-24	25 Jn 1, 1-5.9-14	
5 Mt 7, 21.24-27	12 Mt 11, 11-15	19 Lk 1, 5-25	26 Mt 10, 17-22	
6 Mt 9, 27-31	13 Mt 11, 16-19	20 Lk 1, 26-38	27 Jn 20, 2-8	
7 Mt 9, 35-10, 1.6-8	14 Mt 17, 10-13	21 Lk 1, 39-45	28 Mt 2, 13-18	

Geure web gunea bisitatu



[www.asissarea.org](http://www.asissarea.org)

  
Asis Sarea

646 21 48 96

Abenduko otoitzaldia 26an izango da.